

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUD**DESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE**

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak 30.000 euroko diru-laguntza emango du Lizarrerrian enoturismoa bultzatzeko plan bat bideratzeko

*Laguntza hori Lizarrerriko Turismo Partzuergoak jasoko du*

Miércoles, 24 de agosto de 2011

Nafarroako Gobernuak 30.000 euroko diru-laguntza zuzena onartu du, gaur, Lizarrerriko Turismo Partzuergoari emateko, Lizarrerrian enoturismoa bultzatzeko plan bat egin dezan.

Zehazki, "Nafarroan Rioja Baja jatorrizko deituraren enoturismoa bultzatzeko 2011-2013ko plan estrategikoa"n jasotako 48 ekintzetako batzuk garatuko dira. Ekintza horiek antzemandako ahulezia guztiak konpontzeko, sendotasunak indartzeko eta inguruko enoturismoaren gaitasuna aprobetxatzeko bideratuko dira.

Planak Andosilla, Aras, Azagra, Bargota, Sartaguda, Mendabia, San Adrián eta Viana udalerrien laguntza izango du eta, bertan, atxikitako kideentzako laguntza tekniko pertsonalizatua eman, ardogintzaren ondarearen baloratu, baliabideen plan bat egin, sortzen ari diren merkatuen segmentuetarako eskaintza espezializatua sortu, webgune bat, eskuliburuak etab. egin edo irudi korporatibo bat diseinatuko direla ezartzen du, besteak beste.

Diru-laguntza horren bidez, ardoaren kulturaren, gastronomian, baratzetako aberastasunean eta Nafarroako alde horretako kultura-ondarean oinarrituriko turismoa bultzatzea da asmoa. Helburu hauek ere jaso dira: lurraldea helburu enogastronomiko gisa sortu, bultzatu eta hobetzea, turismo enogastronomiko lehiakorra eta kalitatezkoa eskaintzea, Rioja Baja jatorrizko deiturako ardoen irudia hobetzea eta horien merkaturatzea bultzatzea, baita bestelako produktu gastronomiko bereizgarriena ere, ardoaren ibilbidea bezalako helburuko marka bateratua sustatzea edo ibilbide horretara atxikitako establezimenduek eskaintzen dituzten zerbitzu turistikoaren kalitatea hobetzea.

Horrez gain, honako hauek ere lortu nahi dira: turismoaren eta nekazaritzako elikagaien eta ardogintzaren sektoreen arteko sinergiak sortzea, eskualdeko bisitarien kopurua handitzea, Lizarrerriko Partzuergoak jatorrizko deiturako turismo enologikoa sustatu eta garatzeko politikak eta ekintzak koordinatzea, ardoaren ibilbidean establezimenduak gehitzea edo "Rutas del vino de España" (Espainiako ardoaren ibilbideak) produktuaren klubean helburua gehitzea.